

*Felix Zubiaga*



*Oi Emmanuel!*

**FELIX ZUBIAGA**

**OI EMMANUEL!**

**LIZARDI SARIA, 1991**

**EUSKO JAULARITZA**

Egilea: Felix Zubiaga  
Eragilea: Fermin Iraolagoitia  
I. S. B. N.: 84-7992-085-8  
Deposito Legal: BI - 982 - 92  
Inprimaketa: Igarri, S. C. L. - Rafaela de Ibarra, 1, Bilbao  
Argitaratzailea: IKA - Ibaizabal - Tfnoa. 6734246 - 6731850  
Argitaletxea: Ibaizabal - 4

# I

## OI JAKINDURIA

"Poesia haseran  
Jainkozko gauzen  
erakusketa zan." (M. Opitz)

"...eta gizartean  
egon-min nerea." (Sirak)



*"Izarrak esan digu" (Gabon kanta)*

- 1 Izarrak argitzeko  
gaua behar badu,  
salbamen ahaleginak  
gizonen erratu.

Gauak dakar eguna  
orduen iraulkan,  
gauetz dator Jaun ona  
gizona salbetan.

Beilan itxaron dogu  
zure etorrera,  
argiak eskuz esku  
kandela-negarra.

- 2 Ixuri zuk, zeru,  
zuzentasuna,  
begioz benenkus  
zor deuskuzuna!

"... haren jantzia edurra baizen zuri" (Mk. 9, 3)

3 Lumadun, xalo, zuria  
lehenjaunartzeko jantzian  
zapata zuriz  
ospel, urguri  
heldu jaku miraria

Zuri-mezua hegadun  
angeru onak non dauskun  
zerutik hara  
gure oinetara  
ames-bidea zabaldu.

Harrigarriro edurrak  
loretu dausku bart lurra  
t'asetu barri  
haren egarri  
ahorraren sumindurak.

Haren leundura emera  
alde bien tira-bira  
eten gozatuz  
beheak goratuz  
goiak beheratu bai-dira.

Hako lohiaren osina  
dagerkun malgu apaina,  
emazte horren  
baratza non den  
itxaropenez ereina.

*"Zeu zara elortekoa ala beste bateren zain  
egon behar ete dogu?" (Lk. 7, 19)*

- 4 Urrutiko jainkoengan ez dogu sinisten  
ezin bai-geinke sumatu ze asmo daroen.

Zelan aztertuko doguz euren eskutuak  
gugandik ate bai-dagoz ohargabetuak?

Euretariko bat-edo baletor gugana  
"egunon" esatera, besterik ez bada...

Angerua zerutatik bialdu baleuen,  
gutaz erruki balitzaz, erruki bederen,  
gure negarrak entzun ta gure alde urten  
hilkortasuna hau hautsi, itzi bizi izaten,  
orduan bai geinkiela gogotik egin men.

Nor gara gu baina  
jainkoei eskatzeko  
horren maitasuna?

Euretariko bat bera ama-erraietan  
gizaturik geugaz bizi, geure ogitik jan,  
geugaitik hil eta biztu baldin balitz izan,  
sinetsiko genduken bai haren jainkoagan.

*"Angeru batek Mariari" (Gabon kanta)*

- 5 "Agur Mariaz" hasten da  
munduan jazo denik  
harriegarriena.  
Agur Maria,  
mundua iraultzeko  
Jainkoak nahi izan dau  
zugazko harremana.  
Agur Maria,  
zure baietzaren zain  
-Hitz zeure hitz-bila-  
Jaun ahalguztiduna.  
Agur Maria,  
graziaz bete hori,  
ea nahi dozun izan  
Jainkoaren ama.  
Agur Maria,  
erantzuiozu baietz,  
zeugan da gure uste  
ta itxaropena.

- 6 Betidanik den asmatu Hitza  
erabakia jadanik,  
zelan datorkit zure jakintza  
eritsiaren eskari?

Zer balio dau mirabe honen  
ezbaigabeko baietzat,  
zeu bai-zaitugu nire, gureen  
asmoa eta bizitza?

Ulertezina zaitugun Hitza  
giza einera bazentoz,  
gertu daukezu gure egoitza  
asmo hori onartzeko.

7 Aspaldi baten  
Jainkoak eutsen  
hitz egin gure asabei,  
gure egunotan  
dausku berbetan  
Seme onaren ahotik.

Izadiak du  
mila susmurru  
gizonek hainbat hizkuntza,  
baina argiago  
dausku eragon  
hain Semearen ahotsaz.

Betidaniko  
Hitza den Jainko  
giza berbeta ikasten,  
ama-eskolak  
mintzo totalaz  
maisutzara dau prestatzen.

Zeru ta lurrak  
jakintza beraz  
bat ulertzera bai-datoz,  
jakinduriak  
berba barriaz  
Jaunari "Aita" deritso.

*"Nere angerua bialtzen dot zure aurretik" (Lk. 7, 27)*

8 Izarren angerua  
zeruan ze barri?  
Zeruan barri onak  
orain eta beti.

Ortzian izar horrek  
ze dizdira dagi?  
Jaio barri denaren  
dozue ezaugarri.

Ze mezu dakarskuzu  
izarren angeru?  
Zeruan Jainko dena  
dela hemen gizatu.

Mundura jaio dela  
zerutar izaki?  
Birgina Amarengandik  
harturik haragi.

Jainko Aita ahaltzuak  
dautsue bidali  
Semerik maiteena  
munduaren argi.





*"Herri guztiarentzat pozgarri den  
barria dakartsuet" (Lk. 2, 10)*

9 Itxartu hadi, lotia,  
sorte sozketan  
bai-diabilzak kantariak  
loterienean.

Loterien loteria  
"gordoa" dok hori,  
lo-erien galzoria  
desitxaro gorri.

Sari-txartelik ez badok,  
ez egik erosi,  
sortea bilakaazo  
daikiat urrurik.

Itxartu ta pentsa egik  
edozein numero,  
zoriona bai-dagokik  
gura dokaneko.

Bezperatik diaukaguk-bai  
barri pozgarria  
ume bateren eskutik  
jakula etorria.

Loterien loteria!  
Itxar hadi behingoz  
t'asmau dokan zenbakia  
Haurrari emoiok.

10 Zerutik erregea  
etorteko dela,  
norbaiten deia entzun da  
lehengo gaubelan.

Zeruko erregea  
noizdanik gurera?  
Haizea bai seguru,  
goazemak lotara.

Kantu hotzak ei ziran  
angeru-seinale:  
"hor dozue senarra  
urte zakioze".

Argiak amataurik  
bihotzak lokartu  
gengozala, Errege  
bart da gureratu.

- 11 Sukaldeko enborra  
ia erretzear  
oskilik gengozela  
ilunaren kedar  
sortu zinan, izartxo,  
itxaropen bakar  
zeruaren diztira  
beroaren txingar.

Gaueko izartxoa  
egin da Eguzki,  
ilunak joan ziran  
argia da nausi.  
Ba goaz zure lagun  
egia jarraiki,  
zeuk markatzen dozula  
gure Eguberri.

Ez dogu orain behar  
igarle-amesik  
ez profeta, ez maisu  
ez Olentzerorik;  
gidari zaitugula  
t'herriaren artzain,  
men beitsue jendeek  
gizaldiz gizaldi.

"...giltzapetuei askatasuna (...) eta Jaunaren  
amnistia urtea iragartera bialdu nau" (Lk. 4, 18-19)

12 Kartzelak ustutzeko  
giltza dau eskutik  
non lortu bera baino  
giltzari hoberik?  
Ai amnistiaren  
giltzaria non den.

Amnistia orokorra  
ez zatikakoa,  
ez balitsok laburra  
hire aske-gogoa.  
Ai amnistiaren  
giltzaria non den.

Belenetik diatorku  
manifestapena,  
ukabilak nasaitu  
pozan truka pena.  
Ai amnistiaren  
giltzaria non den.

Zertan diharduzue  
kartzelak handitzen  
oihu gorrototsuez  
bihotzak ertziten?  
Ai amnistiaren  
giltzaria non den.

Borondate oneko  
inortxo bazaree,  
askatasun orokor-  
giltza esku dozue.  
Ai amnistiaren  
giltzaria non den.

*"Hator mutil etxera" (Gabon kanta)*

13 Hator, hator, mutil, etxera  
Eguberritako festera,  
atzerriko latzak ahazturik,  
goza egik gazteen bilera.  
Ikusiko dok uso zuria  
gure zeruan hegaka.

Jara egiok, mutil,  
herriaren zentzunari,  
aserreak baretuizak  
aserreak beretuizak  
metrailak urrun,  
festa baketsua igaro daigun.

Hator, hator, mutil, etxera  
aitaren ta amaren ondora,  
herriko plazan Ikurrin-dantzan  
bai-dozak anaiak begira,  
amnistia dok zerutik jatxi  
aukera bakar-bakarra.

Jara egiok, mutil,  
herriaren zentzunari,  
maitasun-ikurrina hor  
askapen-ikurrina hor,  
gertutik jagon  
ta bakean danok igaro Gabon!

14 "En ancilla Domini"  
neska harrigarri,  
sinistu bai-dautsazu  
angeruari.  
Txaloz ospatzen dogu  
pozaren handiz,  
Jainkoari erantzun  
dautsonagaitik.

Bai "ancilla Domini"  
mirabe apal,  
baietzaz hain mirari  
ein dozu ahal,  
graziaz bai-da bete  
zure amantal  
t"Ave" dogu kantatzen  
hegalik hegal.

- 15 Otoitzean zengozala  
angeru mezularik  
"agur" esan t'emon eutsun  
Jainko-asmoen barri.  
"Egin bedi zeuk esana"  
zuk erantzun berari  
ta behingoan lortu gendun  
sekulako mirari.

Ez dau beste emakumek  
zeuk bezaintzat ohore  
inoiz inon inorgandik  
ez lortu lortuko ere.  
Eguzkiak jantzi zaitu  
hamabi izar dotorek  
koroatu, txaloz jendek  
goratuko betiere.





16 Esaiguzu, Maria,  
ama izateko  
barria hartzean Jose  
ete zan zelokor?  
Ez zan zelokortsua,  
baizik senar zintzo,  
zeruko agindura  
beti esaneko.

Ez ete zendun kexuz  
Belengo bidean  
enperadore-aginduz  
abiau zenean?  
Ez jatzun ez jexatu  
ernegu-hitzetan,  
Jainko-borondatea  
denetan ekusan.

Belengo lehengusuek  
hartu al zinduezan  
amatasuna gertu  
zeugan ikustean?  
Ez zan guretzat izan  
han gau-ostaturik  
t'estalpetxo batean  
gintzazan atotsi.

17 Bi eta hiru bider  
pobreak joten dau  
borondate oneko  
atean taun-taun-taun.

Bi edo hiru bider  
borondate ezari  
pobreak dautso atean  
aukera idegi.

Pobrea aberats balitz,  
hiru ta lautan be  
lehen hotsera atean  
begira gengokez.

Nork baina aberats denik  
legike igarri,  
ate-joka aberatsek  
ez bai-dira ari?

Egizu ate-joka  
datortzun pobrea  
onartu nahiko zendun  
Jainko bera dela.

*"Zorionekoak justiziaren gose-egarri direnak,  
asetuak izango dira-ta" (Mt. 5, 6)*

18 Nork erregalatuko dauku  
Gabonetako turroia,  
nork berotuko dau hain galdu  
jakun ames-eguzkia?  
Belengo Ume argiak.

Nork erosiko dauku guri  
Gabonetan mazapana,  
nork ipiniko edurrari  
zapata zuri apaina?  
Belengo Ume txikinak.

Nork itxiko dautsoz begiak  
agure Urte Zaharrari  
eta Urte Barriari idegi  
ur barreneko iturriak?  
Belengo Haurraren graziak.

Nork dautso ixetuko gauari  
itxaropen-artizarra,  
nork laztanduko pobreari  
esku legunez bizarra?  
Belenen jaio den haurrak.

Nork agintzen dautso ilunari  
goiz-albaren ernamina,  
nork emongo gure bizitzari  
argibide ta zentzuna?  
Belengo Ume potinak.

"Oi Bethlehem" (Noela)

19 "Ogi-etxe"  
zara, Belen, izendatua  
"Ogi-etxe".  
Zeugan gari, zeugan labe  
geugaitik gizon oretua  
eta janari hautatua  
"Ogi-etxe..."

Pobreen alde  
jaso bai-do zu zure eskua,  
pobreen alde  
ekingo dautsogu geuk ere  
ekintza apalean, irauldua  
daiten handikien tronua  
pobreen alde...

*"Zergaitik zagoze hemen egun osoan geldi?" (Mt. 20, 6)*

20 Langileok, zergaitik  
zagoze horren triste?  
Lanikeza delako  
gosearen kide.

Adanen pekatuak  
lana emon euskun,  
oraingoak ostera  
erabat dira antzu.

Kardulatzak haseran  
frutua ekarran,  
orain latzak bakarrik  
kardu gabe dakarz.

Belengo estalpean  
jaio barri dena  
rekonbertzino oneko  
ugazaba ei da.

"Adan barria" da-ta  
alaitu zaiteze,  
lanposturen bat denoi  
ziur dakartsue.

*"Zoaze zuek be nire mahastira  
eta emongo dautsuet bidezko dena" (Mt. 20, 4)*

21 Ugazaba ba dator  
igitaiak dakarz,  
langileak kaleon  
lana izan daian.

"Ze lan ta alogura  
da zure eskeintza?"  
Sindikalek arduraz  
darabile hitza.

"Bila eizue lehenengo  
Jainko-erreinua  
ta gehigarriz izango  
gainerako onura."

Igitaiak eskuko  
solara bakanak,  
gehienek argitzeko  
hain proposamena.

"Uharria da uzta  
ba da preminarik,  
nire langile hautak  
izango dau sari."

"Oi Eguberri gaua" (Noela)

22 Oi Eguberri-gaua,  
ilunpetan argia,  
oraino argitzen dozu  
mundu errukarria.  
Itxumustu darraitzu  
gaur be jentileriak  
erratuaren mende  
guzur-liluratz,  
guzur-liluraz eta  
bekar-hitsa begian.

Oi gau desiratua,  
argi beiz jenderriak  
zugandik argitu den  
gaueko izar argiak,  
ilun-guzurrak uxa  
nausi daiten egia,  
zeu bai-zaitugu, ez beste  
inor jakinduria,  
jakinduria eta  
zuzenbide-eguzkia.





23 Zeru-agintzaz, profeten ohiuz,  
lurrak negar ta intziriz  
gizaldietan irrika ebana  
jaritxi dogu obariz,  
banan zirenak alkar hartuta  
erraiotan, Andre Mari.

Zure ardurak lurraren deia  
jasoz, zerura igorritz,  
zeru-asmoa aurreratu dau  
apalgoaz erakarriz,  
zerua ezkondu bai-da lurragaz  
erraiotan, Andre Mari.

Salbatzaileak aska ahal gindeizan  
ta zuzenbidez ebatsi,  
ortziko hodeiak inotsi ezina  
ez lurramak ernarazi,  
goian ez behean kabidu ezina  
erraiotan, Andre Mari.

*"Hasiko naz esaten (...) zergaitik dagoen  
Jaungoikoa gizon egina Belenen" (Gabon kanta)*

24 Haragi dena bedarra legez  
ihar erori bai-doa,  
Jaungoikoaren Hitza iraunez  
ez da zirpiltzen den lora.

Hitza haragi egin denetik  
gara gizaki hilezkor,  
orain irauna bai-dogu handik,  
non gizakiok Jaungoiko.

Jaungoiko gizon eginagan da,  
gizon Jainkoagan beste,  
armoniaren punttukatzea  
t'estetikaren osatze.

Batak ez dautsu bestea jaten,  
aldebanatzen ez urtzen,  
bien ederra argitu baino  
t'osoan ados soinutzen.

Bien batasun askeak dautso  
emon Idcari forma,  
Hitzari soina, aulari Jainko  
iraunazoaz hilkorra.

Bat edo beste kendu bazengi,  
osoa galdu litzaken,  
Jainkoak egin hain erregali  
ez huts zugandik baztertzen.

"Goazen, goazen korrika" (Gabon kanta)

25           Irrika orduko  
atean dok Jainko.

Biderdi egin diauskuk  
Jainkoak goizetik,  
hoakio nahi baduk,  
Beragaz topo egik.

Irrika orduko  
atean dok Jainko.

Biderdi t'ate-joka  
egunero diabilk,  
Beragaz buru daikan  
itzurika barik.

Irrika orduko  
atean dok Jainko.

Zerutik hona Bera  
egin denez gero,  
hemendik estalpera  
hain nekeza jak, txo?

Irrika orduko  
atean dok Jainko.



## II

### OI EGUZKI

**"Barrizkuntza dena  
ekarri dausku  
beragaz batera". (S. Paulo)**

**"Ene Jainko  
eta apaingo". (S. Agustin)**

*"Ilunpean zen herriak  
argi handia ikusi dau" (Is. 9, 1)*

26 Eguzkia joanik  
gaua erori zan,  
gau ilunak bakarrik  
izarra ekarran.

Horra gure ametsen  
hako mezulari,  
jaio-barria aitortzen  
munduaren argi.

Gauren kontrastean  
izarra argiago,  
itxartu bat-batean  
bera argi doguino.

27 Gau erdia ei zan  
edo egunsentian  
eguzkien eguzkia  
agertu zenean.

Edurra ete zan  
ala curi-jasan  
Jainkogandik Semea  
edatu zenean?

Hodeietan nonbait  
izarretan ausaz  
Mariagan Jaungoikoa  
umetu zenean.

Euritea zela?  
Lehorte zitala?  
Lehorteak gure lurra  
egarritu eukan.

Edurtea zela?  
Izoztea axola?  
Izoztearen izotzez  
hilduratua zan.

Izarretan zela?  
Gauaren gaubela  
Eguzki divinala  
egertu zenean.

28 Aita zeruan Jaungoiko  
ama lurrean Amalur,  
zerua lurrera iduliz  
jat lurra zerutu.

*"Bere arpegia eguzkia baizen ditzdiratsu" (Mt. 17, 2)*

29 Eguzkia begituz  
minik ez hartzeko,  
izar txiki egin don  
begien eineko.

Izarren begilari  
ez don zertan egon,  
nahi gendunan izarra  
ume egin bai-don.

Izarra ta eguzkia  
baino be gehiago;  
hurrera hakion, ez deun  
kalterik egingo.



*"Guztiok Jainko semetzakoa izan gengian" (Gl. 4, 5)*

30 Aitak bidaldu dator  
Kristo gizartera,  
Kristoz anai-arrebak  
daiguzan argira.

Misino eder hauxe  
harturik, goazen  
Aitaren arpegia  
deni erakusten.

Hor Jainko biziaren  
hako agerpena,  
geure antzera eratu  
haragizko soina.

Inpernu hontaraino  
jatxi izan ez balitz,  
ez litzaken guretzat  
zorion-txartelik.

31 Izar argia honaino  
ez jakula heldu?  
Zenbait izarren argiak  
helbiderik ez du.

Irago-ezin distantziak  
dagozela handik?  
Askatasun-irrintziak  
hamaika maratil

Argia dabil berera  
trabara egia,  
baldin bazendu aukeran,  
ez itxi begiak.

Paraleloka jokatzuz  
zer daikegu lortu?  
Ezingo alkar topatu  
horrelako mortuz.

*"Denetan anaien antzeko egin behar eban" (Ebr. 2, 17)*

- 32 Aitaren altzo Bat-Hirukoa  
itzirik,  
itxartu zinan gure auzoan  
haur jantzi,  
angeru-kanten goralpen-bozak  
isilik,  
mindurikaren erreinu hontan  
negarti,  
aintza, indarra, Jainko-koroia  
itzuriz,  
pobre egin zara geure ginoan  
gizaki.

*"Jainkoari Abba 'Aita' deitzen dautson  
bere Semearen Espiritua bialdu dau gugana" (Gl. 4, 6)*

- 33 Jainkoari "Aita" deitu  
"Ama" deitu bardin dautsu.  
Jainkoa ez da gizaki  
gurasotasuna baizik.  
"Aita" deitu "Ama" deitu,  
konfidantzak esan nahi du.

Gurasock ez hauela  
konprenditzen?  
Jaio jakun Jainkoa non  
anaia den.



*"Eta zure bihotza ezpatak  
alderrik alde zulatuko..." (Lk. 2, 35)*

34 Besteak popoan  
zu barriz apapa  
amaren altzoan  
zatorkuz, laztana.

Besteak jai-jantziz  
tenplora, zu barriz  
eskeintza bilusi  
guztion opari.

"Ume hau askoren  
-dino igarleak-  
asmoak aztertzen  
etorria bai-da,

non zure bihotza  
-amari dinotso-  
ezpata zorrotzak  
bai-dau zulatuko."

Besteak popoan  
zu barriz, laztana,  
opari otzana  
amaren altzoan.

*"Basazuhaitzen artean  
sagarrendoa da nire maitea" (Ab. Eder. 2, 3)*

- 35 Gizonak bere kidekoa  
gizatasunez har legian,  
hara Jainkoa sustraitua  
lur barrian.

Geure zurezko egin zara  
nork dazagukez orain Jainko?  
Zure ezpaleko nork gu hauta  
gizakiok?

Sagar basati gintzazanok  
ezuste baten frutu ona  
ekarri dausku zeru-txertoz  
maitasunak.

*"Ni mahatsondoa naz, zuek ahienak" (J. 15, 5)*

- 36 Sustraituko den ustetan dogu  
Gabon-zuhaitza erosi,  
lur pitin batez dogu ornidu  
barru ta kanpo lorontzi.

Urstatu barriz ia egunero  
ea dagian probarik,  
Agerkundera helduez gero  
gagoz itxaro bagarik.

Eskaratzeko lehorraz ziur  
ittoko janan basoa,  
ipinten badon alboan Jesus,  
arnastuko jan gogoa.



37 Jainko-ardura bizi  
amaren erraiak,  
Jainko-agerpen barriz,  
umeak, umeak...

Bularrik baleu berak  
errai, emasabel,  
ama onenak bezela  
haziko gindukez.

Jainko-ardurea da  
gurasotasuna,  
maitez dautse banatu  
gizakiei lana.

Jaunak bere sendiko  
ein ginduzanetik  
gaitzak horren begizkoz  
nahi gaitu atotsi.

Jainko-arduren aurka  
Herodes da jarki,  
argi-ilunen burukan  
ahal bageintez argi!...

38 Jesus jaio delako  
zorion-txartelok  
"Zorion" eta "Gabon"  
puntuatzen datoz.

Hego zurialakoz  
bake-uso bikotx,  
"Zorion" eta "Gabon"  
puntuatzen ados.

Jesus jaio delako  
agurkatzen betoz  
hego paregabeko  
zorion-txartelok.



39 Nor da batera sua t'edurra,  
nor da artzaina, nor bildotx?  
Belenen jaio den Ume ederra  
baten gizaki ta Jainko.

Ta jai Belenen  
ta jai da hemen,  
heldu bai-jaku  
salbamen.

Nor da senarra, nor da emazte  
eztaliarron artean?  
Zeruak deutso egin gonbite  
lurrari ohe berean.

Ta jai Belenen  
ta jai da hemen,  
heldu bai-jaku  
salbamen.

Nork dau ezkontzaz dotea jaso  
Jainkoagazko einera?  
Bildotx-odolak garbitu dautso  
emazteari gerena.

Ta jai Belenen  
ta jai da hemen,  
heldu bai-jaku  
salbamen.



www.beretta.com

- 40 Zerutik lurreraino  
bidea egin ta gero,  
orain Birgina Amaren  
altsoan lo dago  
Jesukristo,  
Gabon zorioneko  
misterio.
- Jainko semea jaku  
goiko tronutik jatxi,  
Ama Birginak dausku  
astronauta jantzi  
Jesukristo,  
Gabon zorioneko  
misterio.
- Jainko enbasadore  
bake-ituna lurrean,  
amesak konponbide  
ahal izan dagian.  
Jesukristo,  
Gabon zorionsuko  
misterio.
- Gizonak hanartean  
ostaz ahal izan dira  
astronauten gurdian  
heldu ilargira.  
Jesukristo,  
Gabon zorionsuko  
misterio.
- Puzminetik jatxirik  
zatoze estalpera,  
zerua bertan dago  
guztioi begira,  
Jesukristo,  
Gabon zorioneko  
misterio.

*"Neska batek semea sortuko dau  
eta haren izena Emmanuel izango da" (Is. 7, 14)*

41 Hodeiak inots ezin eikena  
ez ta zeruak oratu,  
apaltasunez dausku Birginak  
Jainko-semea oretu.

Geurez ezinik zerura igon,  
zerua jaku geuretu,  
maitasunak ez egikeri iraun  
bat biziteaz gabetu.

Gotik behera, behetik gorako  
lezeak igarotzean,  
**Emmanuel** da "gurekin Jainko"  
zerua geure etxean.

*"Zu bai zoragarria, ene maite" (Ab. Eder. 7, 7)*

- 42 Zure begitan nik maite,  
Jainko berbera ikusi dot  
unetxo baten.

Ze u ikusiaz bakarrik  
Jaungoikoaren gizatasuna  
jat ulergarri.

Jainko urruti trazendentala  
unetxo baten hain hurbil  
zeugan, laztana.

Zeru-kliskada lurrera  
zeure begitan dirdari, maite,  
Jainko-diztira.

*"Ume bat jaio jaku-ta..." (Is. 9,5)*

- 43 Zeren jakuz erraiak samurtzen  
urtzen bihotza eztitan,  
zeren pozez ezpainak edeiten  
zeu ikustean seaskan?

Zergaitik gara belaunikatzen  
Zeugan Jainkoa gurketan,  
zergaitik umez umetzen  
bilusik zeu ikustean?

Ba daiteke izan alegia,  
Egileagan hain jator,  
gure nebca, geure anaia  
ezagutzen dogulako.

44 Gauaren erdian  
dena argitu da,  
Belengo bidean  
ez lei oztopa.

Fedeak deitu  
abiatuz hara,  
nondik edo handik  
iritxiko gara;  
biztu daroagun  
barruko garra  
baino argi hoberik  
ez lei konpara.

Izarra galdu  
bide-erratu gara,  
larriak jastau  
batetik bestera;  
angeruak dausku  
urten bidera,  
poz bihurtu jaku  
lehengo bildurra.

Gauaren erdian  
dena argitu da,  
Belengo bidean  
ez lei oztopa.

45 Kolerez begi guztiak  
ez dira zerulegiak,  
ez daue hagaitik ikusten  
zugandiko argia,  
oi Bethleem!

Zure suaren izarrak  
argitu dauz lur bazterrak,  
nahiz ilunpe jarraitzen  
jentilen lantzarrak,  
oi Bethleem!

Ezikusia argitan?  
Bekarra daukee begitan.  
Ai balekuse noizbaiten  
espilu garbitan,  
oi Bethleem!

*"Jainko irudira zuzentasun eta santutasun  
eginiko gizaki barria jantzi egizu" (Efh. 4, 24)*

46 Guk Zuri, Jauna,  
gizatasuna,  
jainkotasuna Zuk guri;  
hain trukaketan  
ezin geinkean  
egin negozio hoberik.

Zuri zarpilak,  
guri mantilak,  
Zu kobean, gu Jauregin;  
lurtarrok gauzuz  
zeru-oinordetu  
halako iraultza harrigarritz.

"Zer izango da ume hau?" (Lk. 1, 66)

47 Angeru-arpegia dauka  
-aituiozue umeari-  
begietan bri-bri deika  
izar bana dizdizari,  
Jainko gizatu mirari.

Ume honen arpegia  
Jaungoikoaren begia,  
berak zainduko herria.

Mintzorik ez daukanarren,  
zerbait esan gura dausku:  
Jainko Seme kutunaren  
askatasun bake-mezu,  
gurekiko konpromesu.

Ume honen arpegia  
Jaungoikoaren begia,  
berak jagongo herria.

Koroirik ez dauka baina,  
bai buruan eguzkia,  
ze kontseilari bikaina  
sakon aztertzen egia,  
zerurainoko bidea.

Ume honen arpegia  
Jaungoikoaren begia,  
berak salbauko herria.



"...eta bere aintza ikusi dogu" (Jn. 1, 14)

48 Izarrak begietan  
ta lorak czpainetan,  
Jainko Seme-grazia  
soinean.

Hain izarraz loretu  
zerua dau zeuretu,  
lurra ez bada abiau  
zerutan.

Zerua enamoratu  
lurrera jatxi jaku  
t'ezkontzaz lotu biak  
zeuregan.

"Seme bakarrari lez Aitagandik  
diatorkon bere aintza ikusi dogu" (Jn. 1, 14)

49 Agerkundeko  
misterioz  
bilusik dakust  
Jainko gizon.

Giza soinkera  
ez da behingoz  
pekatuaren  
hako egoitz.

Mariagan da  
egiztatu  
Jainko haragi  
egin jaku.

Begien zori  
hau soinkera!  
Gizakiak dau  
jo Jainkora!

Epifaniko  
bilustasun,  
bai-zara hilkorren  
ber-osasun.

50 Nazareteko Mari,  
neskato apala,  
Jainkoa erakarteko  
emakume zara.

Sorgin Amboto Marik,  
hain hodeizko gurdiz,  
orrazi bat besterik  
ez euskun ekarri.

Euskaldunok hagaitik  
bildur geuntson hari,  
ha bildur baizen maite  
dogu Andre Mari.

Ez geuntson sorginari  
egin estalperik,  
Andre Mariri barriz,  
gugan ermita bi.

Ha hodeika ebiltzun  
gure irudimen,  
hau oinez non datorkun  
ostatu bilatzen.

Umea ekarri dausku  
Salbatzaile Jauna,  
hagaitik deritsogu  
"Jainkoaren Ama".

Txalo jo eta txalo  
Andre Mariari,  
sinistu eutsolako  
Jaunaren Hitzari.



*"Etaxe honetan esperantza det  
agivandorik onena" (Gabon kanta)*

51 Gabonetako otzara  
dakar Mariak altzora,  
esku biek in oratzen dautso.  
Gabonetako otzara,  
Andre Maria, zeu zara.

Gabonetako otzara,  
txirbil artean dardara,  
jaio-barriak intziri dagi.  
Gabonetako otzara,  
Andre Maria, zeu zara.

Gabonetako otzara,  
emoiozu, ama, bularra  
zure haurrari gozatu daiten.  
Gabonetako otzara,  
Andre Maria, zeu zara.

Gabonetako otzara,  
ogi-ardaoen batzarra,  
pobreei egin erregaloa.  
Gabonetako otzara,  
Andre Maria, zeu zara.

- 52 Jainko-edertasuna  
ahal eiten agiri,  
Jainko-Semea egin zan  
gizaki, haragi.  
Gure soinean sartuz  
ilunak galaziz,  
argiaren iraultza  
daroa barrutik.  
Jakinduria eta  
ahalguztidun hitz  
dena, gu zentzatzeko  
sehaskan isilik.  
Jainko-aintzak indarrak  
ez bai-dau nahi nausi,  
argi-ilunen burrukak  
aintzina darrai.  
Gurutzeak esango  
herioz apalik  
nork nor epaitzen dauen  
azken ekitaldiz.  
EDERTASUNA hantxe  
galdu zan gugaitik,  
Jainko-aintzak gindeizan  
EDERTASUN jantzi.  
Maitetasuna bai-da  
soilik sinisgarri,  
maitasunari dautsot  
bizi-fedea nik.
- 53 Bere antzera sortu ginduzana  
geure antzeko egin zan;  
hain gendun bera ulertezina  
t'halan be nekez ulertan.

### III

#### OI GILTZARRI

Haserak azkenaz  
ba dau lokarri,  
bizi-poesiak  
ez dau amairik.

Gizaki-amesa  
Kristogan meza.

"Izarrek irtetzen du  
hodeiaren ertzetik" (Gabon kanta)

- 54 Izarrek ez daukee balkoirik,  
ez bai-dagoz lurrera adi,  
leihoak itxita daukeez  
gauaren gauerdiz.  
Zer egin dautsegue lurtarrok  
ze kalte, ze irain?  
Txakur argiez doguzalako  
buruak lar jantzi.

Gauaren begiak lotan dagoz,  
gauzainik ez da agiri.  
Norantza jo daue angeruek  
jaiaren batzaldiz?  
Bake-mezurik ez da entzuten  
-zarata larregi-  
lilurak gurtuz, kuku dautsogu  
egin argiari.

- 55 Egon gurekin,  
EMMANUEL  
heldu gugana,  
Jaingo itzel,  
geu ahal gaitezan  
zugana hel.



- 56 Nongo lorategian  
idoroko zaitut  
zerutik jatxitako  
maitasun zapuztu?  
Nora aldendu zara,  
umeen paradisu?  
Zerutiko barririk  
ez da gurera heldu.

Jostailuak makinaz  
egiten dautsuez,  
plastikoaz panpinak  
umeen taiuez,  
haragizko umeak  
rekonbertituez:  
maitasuna antzuki  
galdu zer daroen!

*"Kristo gure Jauna noiz etorriko  
begira gagozela" (1 Tm. 11, 14)*

- 57 Belenen sortu zinanik hona  
bi mila urte betez gero,  
zure etorrera aintzaldatua  
itxaro dogu oraino;  
zugan ustea gorde dogunoi  
ez dauskuzu huts egingo.

Askatxoan egoen haufragan  
ohartu ez ebanak Jainko,  
epailari lez datorkonean  
ezagutuko dau behingoz;  
maitez ez bada, bildur dardaraz,  
oldez, ezpabe derrigor.

*"Harginek baztertu eben harria  
bera izan da hautatu giltzarri" (Mt. 21, 42)*

58 Lurretik zeruraino  
nork egin zubirik,  
zeru bera geugana  
ezik etorririk?

Zubiginen genbiltzan  
arkugintzan ari,  
baina nondik aurkitu  
harako giltzarri?

"Hau da nire semea"  
-zeruak dagerri-  
bera dozue zubi  
ta zubi-giltzarri.

*"Egin bedi nigan zuk nahia" (Lk. 1, 38)*

59 Angeru-mezuari  
esan baietz, Mari,  
geure erantzunak deion  
jarrai zureari.

Zure salbamen-Hitza  
gugan bete bedi,  
lurtar jaioak daigun  
zerurako serbi.



*"Angeruak gara zerutik gatoz" (Gabon kanta)*

60 Gabon-saritan hartzaroan lez  
kantuz nabil atez ate,  
"hiru intxaur ta lau gaztain" ordez  
bilan zure borondate.

Bihotz-atea, arren, idegi  
hurdun dagoen Amari,  
Haurtxoak jaijo dauelako nahi,  
gert ostatua berari.

61 Kristo hire baitan  
osatu dadino,  
haurgintza-minetan  
antziz sorturiko  
bertsook hartuizan  
bake-aginaldoz.

62 Jo kanpaeak Belenen  
hain mirari gabe  
izar barik jaio den  
umearen alde.

Jo kanpaeak Belenen  
emazte dote gabe  
senar gabe erditu den  
amearen alde.

Jo kanpaeak Belenen  
aitabitxi gabe  
zoribako jaio den  
umearen alde.

Jo kanpaeak Belenen  
jaun-opari gabe  
pobrezia jaio den  
umearen alde.

Jo kanpaeak Belenen  
lanposturik gabe  
bartzertu bizi diren  
gizakien alde.

Esan denci pozarren:  
heldu da zuentzat  
aginduta egoen  
seme-oinordetza.

63 Gabon gauean aparitako  
non lehengo sukaldaritza?  
Agur bixigu, agur lebatza  
eta agur makailau-saltza.  
Non Gabon soinuko  
famili-giroa?  
Horra Telebista.

Gabon gauean aparitako  
gonbidau eizuz pobreak,  
zeu gonbidatu ahal izateko  
erarik ez daukecnak,  
gonbida zaiezan  
mahai oparotsuan  
gero zeruko Aitak.

*"Ez gaitezan ibili jan-edankerietan" (Ebr. 13, 13)*

64 Olentzero, buru handia,  
zentzunez ezain jantzia,  
heure herriko zentzunak nondik  
hauen sutara jaurtia.  
Auziaren hautsia!

Olentzero, buru handia,  
baina handiago tripia,  
fedez argitu behar orduan  
ardoaz nastau dok txispia.  
Suziaren bustia!

Olentzero, buru handia  
ta txontxongilo jantzia,  
heure credura barrutik jantzi-  
taldeak darraik lehiaz.  
Bai piura tristian!

"Gose zirenak ondasunez bete  
eta aberatsak esku-hutsik bialdu dauz" (Lk. 1, 53)

65 Dringilin-dron  
gaur Gabon,  
sabel beteaz gaurko mundua  
ez daiteke konpon.

Sabelak bete, buruak ezain,  
giza baloretan hutsak,  
Olentzeroren mozkorretatik  
doguz jarraibide motzak.

Gu konpontzeko zerutik Jainko  
gizon egina diatorku,  
bihotz-ateak zabaldu behingoz,  
bera bai-dogu aholku.

Mundu ezapain hau noiz konpondu  
esanez gero "hor konpon"?  
Solidaritzaz hobe agindu  
guztici bake-zorion.

Dringilin-dron  
gaur Gabon,  
pobreen sabel goseak ere  
izan daien bonbon.



*"Bilusik nengon eta jantzi egin ninduzuen" (Mt. 25, 43)*

66 Urte Barrikari,  
daukanak ez daukanari;  
guk eukien mundukoek  
ezeukienari.

Urte Barri larri,  
zaharrak zorrak sarri;  
nork erantzun behar dautso  
ihazko galpenari?

Urte barriz sariz  
zorrak kitu bediz,  
nik hiri ta hik niri  
zorion-obari.

*"Nire anaietariko txikion bateri  
egin zeuntsena neuri egin zeunsten" (Mt. 25, 40)*

67 Txikiotako  
bakoitzari  
egin zeuntsena  
bera neuri.

Erromes nintzan  
t'ostatuz hartu  
ninduezuen:  
hau da Belen.

Goserik nengon  
ta jaten emon  
zeunsten neuri:  
horra Gabon.

Bilus negola  
soinekoz jantzi  
ninduzun ni:  
Eguberri.

Espetxean ta  
ikustatzera  
etorri zinan  
Jainko bera.



*"Izarra noiz agertu jaken  
jakin eban Herodek" (Mt. 2, 7)*

68 Heroden jauregira  
sartzean, magoek  
izar mezularia  
galdu bide croen.

Baina Jerusalemik  
Belenerakoan,  
keinuz eben aurretik  
izarra behingoan.

Kontsumoak izarrez  
markatzen jok ona,  
bai susmo-erratuez  
galazten onena.

Jainko-aintza agiri  
nahi badok ikusi,  
kontsumo-jauregitik  
hoake ihesi.

"Mirra preziosa" (Mariajesiak)

69 Ez urre, ez intzentzu,  
gaur mirra dakartsut,  
bedar mingotsok landan  
uharitzen jakuz.

Urre dena gastauz,  
intzentzua amatauz,  
gelditzen jakun uzta  
bedarki garratz hau.

Ospea harroek  
intzentzuz daroe  
ta dagokizun aintza  
ukatzen dautsue.

Maitasun urritu  
ta fede medartu,  
nekaldiaren mirrak  
unatuko gaitu.

Erailketen mirra,  
tiro eta tira,  
ez da beste oparirik  
heldu gure mahaira.

"Bakea lurrean gizakiei" (Lk. 2, 14)

70 Bake-lapurrak dabilz  
gizartea apurtzen,  
zeruko erregali  
onena ebasten.

Zeru-lurreko mahaia  
aldebanatze horrez  
onen borondatea  
ukatzen zatoze.

Bake-ohoinok geldi,  
herio-armak gorde,  
Jaungoikoaren aintza  
bai-da gizona ere.

Angeru-cinera jaso  
zaren gizakia,  
abere izateraino  
zaroaz gaizkiak.



Children playing a game in a field.

*"Mirraz nastauriko ardaoa emon eutsoen  
eta ez eban hartu" (Mk. 15, 23)*

71 Drogamindu gazterik,  
hori dokan buru,  
mirra guztia iruntzi,  
zainak dozak sutu:  
fedearen intzentzu  
trukatuan guzur,  
behar dokan urrea  
gurasoci ostu.

Jainkotar opariak  
lapurtu cin dituk,  
ohiko paradisua  
eikilako itzul:  
ezpataz angeruak  
laster hau lekutu,  
izadi dena kontra  
jakala jarkitu.

Fedearen "drogea"  
jastatu bahendun  
t'haren espirituaz  
mozkortu zentzundun,  
hire soinak zutunik  
ernai ta osasun,  
ekaitz erdian ere  
ekiken erantzun.



*"Irensugeak zeruko izarretan hirurena  
lurrera jaurti eban." (Ag. 12, 4)*

72 Belenera joian baino,  
izar gorria galdu zan  
iparra lagaz, bere gan  
irabiatzeragino,  
herri-amesez beretzat  
egian konstelazino.  
Erratuaren erratuz  
izar gorria zan galdu.  
Jainkoa bera bailitzan,  
jendek eben adoratu,  
Mesia askatzailatzat  
kale betean goratu:  
Jainko-semetza ordetan  
morrontza eben aurkitu.  
Erratuaren herratuz  
herriak ziran gorritu.  
Angeru onak Belenen  
ez eban etsi berean  
urtero Gabon-Gabonen  
eskubide ta bake dan  
askatasuna iragarten,  
herriak salbatzearren  
Jainko haragitu bai-zan.  
Belengo izar zuriska,  
gorriminetik gu aska.  
Izar gorriak galtzean  
ezin-promesen lilura,  
jendek itzuli zirean  
zerutar ohiko mezura:  
angeruzkoci eskerrak,  
Gabonak doguz atean.  
Erratuaren arteztez  
izarra barriz agertzen.

*"Haren izarra ikusi dogu  
eta gur egitera gatorkoz" (Mt. 2, 2)*

73 Ormuztik Petraraino  
mezutu gentozen  
izarrari jarraiki  
Mesiaren galdez.  
Izar bat zan haseran  
ta Kuwaiten hantxe  
estrcilatu egin zan  
zerutar mentsaje.

Bake-izar ordetan  
mila izar aizun  
bekoki izarratuko  
gudari betilun.  
Aika, gudako izar,  
bakezkoa non duk?  
Urdina dinok ala  
tximista gorridun?

Ez da gorri ez urdin  
argitsua baino.  
Argi galduci bide  
dautsegu galazo.  
Bekoki izarratudun  
horren gizagaiso,  
benetako mezurik  
ez dozue jaso?

Ganbeluak itzirik,  
tankeez armatu,  
sarkaldera jo gendun  
guduz kamufflatu.  
Batzuk izar ikurraz  
badoaz burrukan,  
gudu-zaldiz goakez  
gu bake-mezutan.

"Astoa ta idia  
daukaz aldamenian" (Mariajesiak)

74 Santurtzirako trenean barik,  
Trianokoan sartu naz,  
erdi arrastan garoaz trenak  
haren burdinen astunaz.  
Bilbotiko erregaluak,  
Gabonzaharreko amesak,  
amona pobre, neska baltzeran,  
jende apalak dakusdaz.

Barakaldoko gurutzebide  
Gailarta mendi aurrean  
erratunea susmo dot hantxe  
hako jendeen taiuan.  
Ez zan ba berau Santurtzirako  
asmoa? Ustekabean  
non sartu nazen Barakaldotik  
Belen pobreko atean.

Trapagan jatxi eta  
osterakoa hartu,  
eskoluz beteko  
trenean naz sartu.

Pobre jantzirik datoz  
barreka alaitsu  
PINerako amesaz  
berbaroz berotu.

Barakaldon oster  
Santurtzirakoa,  
agur pobreon poza  
Santurtzira noa.

Non bilete berberaz  
primerako tren:  
neke doblez bereizten  
eukiek pobrea.

*"Haur maitagarri ederra" (Gabon kanta)*

78 Zu gabe izarra  
lehiarra,  
zu gabe zuhaitza  
zurkaitza  
zu gabe sariak  
zuriak.

Zu gabe Gabona  
zuntzuna,  
zu gabe kantua  
lantua,  
zu gabe zaharkitu  
gizona.

Zu gabe negua  
den otza,  
zu gabe edurra  
izotza,  
zu gabe jaiotza  
hilotza.

*"Herodes erregea  
faltsa traidoria" (Mariagesiak)*

79 Herodes erregeak  
segurantzarren,  
urte bitik beherako  
haurrak hil zituen.  
Jaiogabeak ere  
bardin leukez hilen:  
horra amen erraiei  
ze errespeto deutsen.

Belengo umeak behintzat  
hileta izan eben,  
gaurkoak defensarik  
nonbait izango ete?  
Erneminetik jaso  
dozuen des-lege  
horixe da Herodek  
nahi leukena bete.



*"Haur ttipien ama onak" (Noela)*

80 Haur ttipien ama onak  
ostera dira larritu  
genetikaren Herode  
ikusiz odol-gorritu.

Bata zuritan bai baina  
gogo-asmoak gorritan,  
Jesusek gaur jaiotzeko  
doble eragozpen leukean.

Bere manipulazinoz  
ei dator supergizona  
t'Espiritu-eraginez  
amatu da Ama Birgina.

Jainko-semeen seinua  
daroagula soinean,  
ereduen credua  
dogu Belengo haurragan.

*"Opariak eskeini eutsoezan  
urrea, intzentzua eta mirra" (Mt. 2, 11)*

81 Poz-txilinak Belenen  
bihotz gaiso ordez  
barria hartu dauen  
Oihanaren alde.

Jo txilinak Belenen  
sidatu Israel  
baztertua izan den  
mutikoaren alde.

Poz-txilinak Belenen  
banaka beharrez  
txortan jaio diren  
anaitxoeren alde.

Jo txilinak Belenen  
begiramen gabe  
abortatu izan den  
umearen alde.





82 Ez ote zen, Joshepe,  
Orientekoei  
Jesus erakusteko  
errege-tronurik?  
Etxe pobretan legez  
gurean be bardin,  
ama-altzoa zendun  
bere agintaulki.

Kredentzialik ba eukeen  
enbasadoreek  
Haurragan onartzeko  
benazko errege?  
Ez euken ez gidari  
kredentzialik ere,  
ezik bideko izarra  
t'hagandiko fede.

Erregalutan nahiko  
ekarko cutsuezan  
pobretasun latzaren  
gozarigarritzat?  
Mirra, intzentzu, urrea  
zenduzan eskeintzak,  
bere nortasunaren  
ezagungarritzat.

*"Aberatza izanik pobre egin zan  
bere aberaztasunaz zuek aberaztu zaitezen" (2 Co. 9, 9)*

83 Jaunak morrontza aukeratu dau  
geu serbitzeko,  
besteen nekeak aukeratu dauz  
gu osatzeko,  
menpetasuna aukeratu dau  
gu askatzeko  
ta baztergoa aukeratu dau  
gu hautatzeko,  
gizatasuna aukeratu dau  
gu jainkotzeko,  
pobretasuna aukeratu dau  
gu aberasteko,  
ezintasuna aukeratu dau  
gu indartzeko,  
apaltasuna aukeratu dau  
gu goraltzeko,  
isiltasuna aukeratu dau  
gu eskolatzeko,  
maitetasuna aukeratu dau  
gu sustatzeko,  
heriotzea aukeratu dau  
gu salbatzeko.

84 Bizia gugaitik  
opa ahal izateko  
ein zinan gizaki  
ume zinan jaio.

85 Umea amaren altzoan,  
errege apala tronuan:  
Orienteko magoek Jesus  
aurkitu eben moduan,  
adora daigun mulkoan.

Ama aulkian jesarri,  
Umea altzoan jaurleri;  
Euskalerriko Andre Maria  
erakusten herriari,  
Baraxuen edo Goiuri.

Maria ez da nekatzen  
ez ta Jesus aserretzen,  
nahiz ta oraingo jende bihurrak  
hain Errege samurraren  
mendeko egiten ez diren.

Errege onari ikusari  
indarkeriara jo barik,  
Amaren altzo gozotik gaizan  
bakean danok bat jaurri,  
zuzen legea jarraiki.

*"Aparizio zaldunen  
hiru erregen egunen" (Gabon kanta)*

86 Agertu izan ez balitz,  
zertan bilatu ez geunken,  
jakintsu, pobre ta arlotei  
hitzez, sinboluz, arpegiz  
biderdi egin bai-eutsen.

Neure begioz ikusi,  
neure eskuoz ikutu  
arpegi hori ez banci,  
ez nei emon amorerik  
ta gitxiago sinistu.

"Txikioki ohi dautsezuna  
neuri egiten daustazu"  
ikus bazengi laguna  
eta maiteki onartu,  
hurrago zenduke Jauna.

87 Atean da eskekoa  
gure Telebistan  
publizidadea hoska:  
ze turroi, ze txanpan!  
ze barri dakarskuzu,  
agure Paul Newman?

Atean da eskekoa  
izar lokak Telez,  
publizidadea harro  
mozkortu txanpanez.  
Ze barri dakarskuzu,  
amander Raquel Welch?

Atean da eskekoa,  
zarata barrutik,  
barriona entzuteko  
ez dago arorik.  
Ze barri dakarskuzu,  
Kontsumo jaun jori?

88 Jentiltzaroko izarrak  
zinduzan ekarri,  
hodei aldeko bekarrak  
etzindun igarri

Zure bisitaz goiztiri  
nahiz izan argitu,  
ilunak bere zokotik  
nabaritzen zaitu.

Itxaron latzak zapuzten  
bai-gaitu hainbeste,  
egun handiko zelaian  
zutik egongo ete?

Turuta miragarriaz  
barriz zatozkela,  
amildegitik salbauko  
agure jentila?







89           Aintza Zuri, aintza  
              eta alabantza.

Angeruen korura  
hurreratu gara  
goralpenak abesten  
mila ahotsetara.

Aintza Zuri, aintza  
eta alabantza.

Estarri onekook,  
kantagaioz soindu,  
musikari zareenok,  
korura konpondu.

Aintza Zuri, aintza  
eta alabantza.

Kantatuaz bakea  
gert izango dogu  
gizabide-legean  
eginala koru.

Aintza Zuri, aintza  
eta alabantza.

Maite bai gaitu Jaunak,  
berarena da aintza,  
bereaz janztekotan  
jo Belenerantza.

Aintza Zuri, aintza  
eta alabantza.

*"Hitzza haragi egin zan" (Jn. 1, 14)*

90 Zure Hitzaren bidez  
sortu zan mundua,  
entzunaz uler daigun  
esaten dauskuna.

Hitzaren esanera  
gizaki ta izaki  
doinu ezagun doguz  
berba ulergarri.

Gizaki-entzumena  
gorreriz zencan  
zure Hitzza haragi  
zan gure artean.

Hitz hori predikatzen  
gabilz misiolari,  
haserako zentzunaz  
ahal gaitzezan argi.

91 "Poesia galdu dogu"  
dinoe poetek,  
"poesia joan ein da"  
Bahalen profetek,  
zentzunik gabeko hitzetan  
hondatu bai-eben,  
erraietako umea  
nola ama galduek.

Nahiz poesia goizero  
jaio izan Belenen  
behartsu, apal, argiro  
danon itxaropen,  
ba daite angeru-mezua  
ez heltzea askoren  
belarritarra ta gorrei  
ezina entzumen.

"Poesia galdu ein dogu"  
baleue aitortu  
ta mendiz, baserriz jarraiki  
beraren aiduru  
ta kalez, txabolez balebilz  
Haurraren inguru,  
poesia aurkitzea  
ez leite milagru.

*"Goazen Belenera eta ikus daigun  
jaso dena" (Lk. 2, 15)*

92 Aurten ere ba datoz  
umeak algaraz  
eskabide-hotsean  
Belen kantatzera.

"Goazen" errepikatuz  
gonbidau gaitue,  
noraezik gelditu  
gara harrituxe.

Itzuliko ete dira  
hurrengoan ere?  
Umerik izango al da  
kantatzeko Belen?

### **Autorearen beste lanak:**

a) Umeentzako ipuinak:

*Pinto 1* (1979) (1982)

*Pinto 2* (1980)

*Kirru eta Aldapeko sagarra* (1982)

b) Gazteentzako ipuinak:

*Karramarroen aurrekua* (1983)

*Kuku pasota* (1984)

*Halabeharrez mediku* (1986) e. a.

c) Eleberriak:

*Babilandia* (1977) Agora-Saria-63  
Donostian

*Rh- Odolestuak* (1982)

*Espedientea* (1987)

*Kalean andre* (1988) Bizkai-Foru-Ald.  
Saria

*Lekuan lekuan maloa* (1990) B. F. A.  
Saria

d) Olerkiak:

*Kurtzemendi* (1981)

*Zure argi kliskak* (1986) Arrese ta B. -  
Saria

*Uraren ohikuna* (1989)


*Harri eta oihartzun* (1990)

*Deslilurapen parabolak* (1990)

Bilusik aurkitu neban  
poesia,  
edatu-barri eukatsun amak  
begion gosaria...



9 788479 920852



77003